**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(2016-06-08)**

HIRIGINTZA ZINEGOTZIA:
JOSEBA ARREGI jauna

INGURUMENEKO ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

NATIVIDAD MORALES andrea (Gizatiarreko ordezkaria)
CARLOS ARANA jauna (Sarekideko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jauna (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
AGURTZANE OLAIZ EGURROLA andrea (Eskola Agenda 21 eta Romoko ikastetxe publikoko irakaslea)
JON IÑAKI LLONA jauna (Basozaleakeko ordezkaria)
KOLDO NABASKUES jauna (Urkoa Kontsumitzaileen Elkarteko ordezkaria).
CELIA MARAÑON andrea (Ekologistak Martxan)
DIMAS RAMOS jauna (Kirol elkarteak)

Honako hauek ezin izan dute etorri: JAVIER GALÁN jauna (Getxo Enpresako lehendakaria), JAVIER LOIDI jauna (unibertsitate munduko pertsona), TOMI ETXEANDIA jauna (Eskola Agenda 21 eta San Nikolas ikastolako irakaslea), JUANJO QUIÑONES jauna (Urtealaiaken ordezkaria), JOSU INTXAURRAGA jauna (ItxartuTaldea) eta JOSÉ GÓMEZ jauna (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona).

Getxon, 2016ko ekainaren 8an. Gaurko arratsaldeko zazpietan Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da eta aipatutako kideak etorri dira.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin andreak arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du eta gai zerrenda aurkeztu du.

**1.- 2016-05-11n egindako Foroaren akta onartzea.**

Akta aho batez onartu da.

**2.- Tokiko Agenda 21eko, 2016-2019, Tokiko Ekintza Planaren errepasoa eta azken ekarpenak.**

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(08.06.16)**

CONCEJAL DE URBANISMO:
D. JOSEBA ARREGI

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de Gizatiar)
D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
Dª. AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (Agenda Escolar 21 y profesora del Colegio Público de Romo)
D. JON IÑAKI LLONA (Representante de Basozaleak)
D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Consumidores Urkoa)
Dª CELIA MARAÑON (EkologistakMartxan)
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)

Excusan su no asistencia, D. JAVIER GALÁN (Presidente de GetxoEnpresa), D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad), D. TOMI ETXEANDÍA (Agenda Escolar 21 y profesor de la Ikastola San Nikolas), D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), D. JOSU INTXAURRAGA (ItxartuTaldea) y D. JOSÉ GÓMEZ (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente).

En Getxo, a 8 de junio de 2016. Se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Dª Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y presenta el orden del día.

**1.- Aprobación del Acta del Foro celebrado el 11.05.16.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Repaso y últimas aportaciones al Plan de Acción Local de Agenda Local 21 2016-2019.**

Adibide gisa, eta planaren irismena ulertzeko, ekintza-fitxa bat nola geratuko litzatekeen eginda erakusten dugu. Hau da, ekintzetako bakoitzerako deskribatuko diren eremuak: zein lerrotakoa den, programa, deskribapena, adierazleak, lehentasuna, egin beharreko ekintzak, ekintza horiek egiteko epea eta beraien aurrekontua, arduraduna eta zerikusia duten eragileak.

Planari aurreko batzarrean utzi zen momentuan heldu zaio, hau da, 4 eta 5. lerro estrategikoetako ekintzak banan-banan aztertuko ditugu batzar honetan, foroak proposatutako aldaketak ikus ditzan eta proposatzen diren ekintza berrietan ados dagoen edo ez adieraz dezan.

4. LE: UDALERRIKO BALIO NATURALAK, BIODIBERTSITATEA ETA PAISAIA BABESTEA

4.1. programan, Kostaldea babestu eta lehengoratzea, foroak proposatutako ekintza guztiak mantenduko dira, baina ekintza orokorragoak egiteko helburuz taldekatu dira, eta berezitasuna ekintzaren fitxan islatzeko moduan:

- Kostaldeko zerrenda kontserbatu, lehengoratu eta mantentzea, dunen ekosistemei arreta berezia eskainiz
- Balio geologikoak ezagutzera ematea
- Galeako txilardiak berreskuratzeko proiektuari eustea
- Apo lasterkaria babesten jarraitzea

Xabi Buenetxea jaunak proposatu du kontserbazio, lehengoratze eta mantentze ekintza Azkorri hondartzara ez mugatzea, baizik eta kostaldeko zerrenda osoa barnean hartzea.

4.2. programan, Bolueren eta uretako ekosistemen babesa, hobekuntza eta sustapena, ekintzak hiru ekintza hauetan taldekatu ditugu:

- Kudeaketaren eta mantentze lanen arloko egutegi bat osatzea eta hezeguneko eskumenak banatzea, indarrak batzeko.
- Bolue Bolueko haranera, korridore ekologikora eta Gobela ibaian urak har ditzakeen azpiegituretara zabaltzea.
- Anfibioentzat hezeguneak gaitzea eta lehengoratzea

4.3. programa, natura-interesa duten zonak babestu eta lehengoratzea, honela geratuko litzateke:

- Aurretik eta ondoren faunaren eta espezie adierazleekin inbentarioa egitea adierazleekin, bilakaera neurtzea ahalbidetzeko.
- Zonen jarraipena eta mantentzea egitea, pertsonen erakarpenak ez dezan aldaketarik eragin.
- Landare inbaditzaileak, esate baterako panpa-lezkak eta espartinak.
- HAPOaren korridore ekologikoari buruzko proposamenen jarraipena egitea.
- Erakarpenak sortzea: istilak, lahardiak, txilardiak, putzuak, begiratokiak, hiri inguruko zonak eta abar.

A modo de ejemplo, y para comprender el alcance del Plan, se muestra cómo quedaría elaborada una ficha de acción, es decir los campos que se describirán para cada una de las acciones: línea a la que pertenece, programa, descripción, indicadores, prioridad, acciones a desarrollar, plazo de ejecución de dichas acciones y su presupuesto, responsable y agentes implicados.

Se retoma el Plan donde se dejó en la pasada reunión, es decir, a lo largo de la reunión se van a analizar las acciones una por una de las líneas estratégicas 4 y 5, para que el Foro pueda ver los cambios propuestos y exprese su conformidad/ disconformidad con las nuevas acciones planteadas.

LE 4: PRESERVAR LOS VALORES NATURALES, LA BIODIVERSIDAD Y EL PAISAJE DEL MUNICIPIO

En el Programa 4.1.: Proteger y recuperar el litoral, todas las acciones propuestas por el Foro se mantienen, pero han sido agrupadas con el objetivo de tener unas acciones más generales y que la especificad quede reflejada en la ficha de la acción:

- Conservación, restauración y mantenimiento de la franja del litoral con especial atención a los ecosistemas dunares
- Dar a conocer los valores geológicos
- Mantener el proyecto de recuperación de los brezales de la Galea
- Continuar protegiendo al sapo corredor

D. Xabi Buenetxea propone no limitar la acción de conservación, restauración y mantenimiento a la Playa de Azkorri si no que englobe toda la franja del litoral.

En el Programa 4.2. Protección, mejora y promoción de Bolue y de los ecosistemas acuáticos, también agrupamos las acciones en estas tres acciones:

- Crear un calendario de gestión y mantenimiento y distribuir las competencias del humedal para aunar fuerzas.
- Extender Bolue al Valle de Bolue, corredor ecológico e infraestructuras inundables del Gobela.
- Habilitación y recuperación de zonas húmedas para los anfibios

El Programa 4.3.: Protección y recuperación de zonas de interés naturalístico, quedaría de la siguiente manera:

- Inventario faunístico previo y posterior y de especies indicadoras, con indicadores que nos permitan medir la evolución
- Seguimiento y mantenimiento de las zonas para que la atracción de las personas no cause alteración.
- Control de las plantas invasoras como las cortaderias y las espartinas.
- Seguimiento de las propuestas relativas al corredor ecológico del PGOU.
- Creación de atractivos como charcas, zarzales, brezales, pozos, observatorios, zonas periurbanas, etc.

Xabier Buenetxea jaunak proposatu du “eraldaketa” hitza erabiltzea, “suntsiketa” hitzaren ordez.

Natividad Morales andreak jakin nahi luke panpa-lezkak nola ken daitezkeen. Josu Ateka jaunak azaldu dio prozedura zabalduena herbizida sistemiko bat aplikatzean datzala, glifosato izenekoa. Landarea dagoen lurraren arabera, hautseztatu edo injektatu egiten da. Aldundiak mantentze plan bat dauka, elkarrekin egin beharreko ekintza baita.

4. lerro estrategikoan zenbait ekintza zeuden, erantzunkidetasunaren sustapenarekin eta prestakuntzarekin zerikusia zutenak, eta 2. lerro estrategikora eramatea egokitzat jo da: ingurumen-kalitatearen informazioa eskuratzea eta herritarren parte hartzea aktibatzea:

- Ingurumen Gela berriro martxan jartzeko aukera aztertzea
- Natur interesa daukaten zonen informazioa zabaltzea, paperezko argitalpenen bidez edo bitarteko digitalak erabiliz.
- Boluntariotza bultzatzea, eta boluntario horiek prestakuntzarekin eta informazioarekin bisita / jarduera programatuak egitea.
- Ikastetxeek txango ekologikoak egitea korridore ekologikora / behatokietara.

Agurtzane Olaiz Egurrola andreak galdetu du noiz jarriko den Ingurumen Gela martxan. José Luis Landa jaunak esan du bere egunean egin zen aurrekontua ez dagoela eta, horrenbestez, funtzionamendua zerbait ezberdinxeagoa izango dela. Oraindik ere gauza asko definitu behar dira baina agian apirilean neska-mutilekin lanean has gintezke.

5. LE: INGURUMEN-KALITATEA ETA BALIABIDEEN ERABILPEN IRAUNKORRA

5.1. programa: Uraren zikloaren tratamendu iraunkorra.

- Saneamendu sareak hobetzeko jarduketa plana
- Getxo udalerriko ur banaketako sarea kudeatzeko plana
- Kaleak sareko uraz ureztatzeari buruzko azterlana.
- Lorategi-aldeetan ureztapena kontrolatzea.
- Igerilekuak desinfektatzeko eta urari fluorra botatzeko dauden aukerak aztertzea.

Natividad Morales andreak igerilekuak desinfektatzeko beste aukera batzuk ikertzearen garrantzia azpimarratu du, alergiak, begien eta mukosen narritadura, eta toxikotasuna (kloroa eta haren konposatu halogenoak arnasteagatik) ekiditeko, eta berdin dutxatzen garenean, arropa lisatzen dugunean eta abar. Uste du gatzaren erabilera (hau da, kloruro sodikoa, elektrolisiaren bidez) konponbide ona dela. Desinfekzio metodo hau igerileku publiko eta pribatu askotan erabiltzen ari dira. Fluorrari eta hura edateko urari botatzeari buruz, Natividad Morales andreak azaldu du ondo legokeela foro honi informazio serioa eta teknikoa ematea, Eusko Jaurlaritzaren fluorra aztertzeko batzordeak (EIS 2014) aitortu baitu balizko neurotoxikotasuneko arriskua dagoela.

D. Xabier Buenetxea propone utilizar la palabra “alteración” en lugar de “destrozo”.

A Dª Natividad Morales le gustaría saber cómo se logra eliminar las cortaderias. D. Josu Ateka explica el procedimiento más extendido que consiste en la aplicación de un herbicida sistémico, el glifosato, que dependiendo del suelo donde esté ubicada la planta puede ser pulverizado o inyectado. La Diputación cuenta con un Plan de Mantenimiento ya que se trata de una acción que debe emprenderse conjuntamente.

En la línea estratégica 4 había ciertas acciones más relacionadas con la formación y el fomento de la corresponsabilidad que se ha considerado oportuno trasladar a la línea estratégica 2: Acceso a la información de calidad ambiental y activar la participación ciudadana:

- Estudiar la posibilidad de volver a poner en marcha el Aula Medioambiental
- Difusión de información de las zonas de interés naturalístico a través de publicaciones en papel o vía digital
- Potenciación del voluntariado que con formación e información realicen visitas/ actividades programadas.
- Salidas ecológicas de los centros escolares al corredor ecológico/ observatorios.

Dª Agurtzane Olaiz Egurrola pregunta a ver cuándo se pondrá en marcha el Aula Medioambiental. D. José Luis Landa explica que no se cuenta con el presupuesto que hubo en su día y que por tanto su funcionamiento será algo diferente. Todavía hay que definir muchas cosas pero quizás en Abril se pueda comenzar a trabajar con los y las chavalas.

LE 5: CALIDAD AMBIENTAL Y UTILIZACIÓN SOSTENIBLE DE LOS RECURSOS

Programa 5.1.: Tratamiento sostenible del ciclo del agua.

- Plan de actuaciones de mejora de las redes de saneamiento
- Plan de gestión de la red de distribución de agua del municipio de Getxo
- Estudio sobre el riego de las calles con agua de la red.
- Control del riego en zonas ajardinadas.
- Estudiar alternativas para la desinfección de piscinas y la fluoración de las aguas

Dª Natividad Morales recalca la importancia de buscar alternativas para la desinfección en las piscinas evitando así, las alergias, irritaciones de ojos y mucosas y la toxicidad, por inhalación del cloro y sus compuestos halógenos, a los que estamos expuestos, igualmente cuando nos duchamos, planchamos etc. Opina que la utilización de sal, (cloruro sódico, por electrólisis), parece una buena solución. Este método de desinfección, está siendo utilizado ya en muchas piscinas públicas y privadas. En cuanto al Flúor y su adición al agua potable, Dª Natividad Morales argumentó, que estaría bien que se diera una información seria y técnica a este Foro dado que Comité de estudio del Gobierno Vasco sobre el flúor (EIS

2014), reconoce que existe un posible riesgo de neurotoxicidad.

Beste alde batetik, foroak behin batean proposatu zuen “aparkatzeko zona berrietan (hirigunekoak ez diren eremuetan) ura iragazten duten material porotsuak erabiltzeko aukera” kontuan izatea, baina udalak esan digu ez dagoela asmorik hirikoak ez diren eremuetan aparkatzeko zona berririk sortzeko.

Por otro lado, el Foro propuso en su día la acción de “Contemplar la posibilidad de utilizar materiales porosos que filtren el agua en las nuevas zonas de aparcamiento (áreas no urbanas)” pero desde el Ayuntamiento se nos ha comunicado que no está previsto el desarrollo de nuevas zonas de aparcamiento en áreas no urbanas.

5.2. programa: Hondakinen kudeaketa iraunkorra.

- Hiri hondakinen zati organikoaren gaikako bilketa udalerri osoan ezartzea, 5. edukiontzi marroiaren bitartez.
- Autokonpostajearen sustapena
- Zabor tasak hiri hondakinen sorreraren edota 5. edukiontziaren erabileraren arabera ezartzeko aukera aztertzea
- Murrizpena jatorritik sustatzea

Programa 5.2.: Gestión sostenible de los residuos.

- Implantación de la recogida selectiva de la fracción orgánica de los RU en todo el municipio a través del 5ª contenedor marrón.
- Fomento del autocompostaje
- Estudiar el establecimiento de las tasas de basura en base a la generación de residuos urbanos y/o a la utilización del 5º contenedor
- Promover la reducción desde el origen

Murrizpena, jatorritik egiten denean, ahalegin bat egiten da hondakinak eta beste material batzuk murrizteko, ekoizpen industriala aldatuz. Hau da, fabrikatzaileek eurek parte hartu behar dute eta produktuetako materialak edo bilgarriak kendu edo murriztu behar dituzte.

La reducción desde el origen implica un esfuerzo para reducir los residuos y otros materiales modificando la producción industrial. Es decir, que los propios fabricantes se impliquen y eliminen y/o reduzcan los materiales/ envoltorios de sus productos.

Zentzu honetan, Koldo Nabaskues jaunak esan du gero eta zabalduago dagoela harategira / urdaitegira / arrandegira tupperra eramateko ekimena, produktua bertan zuzenean jartzeko eta horrela bilgarririk eta poliespanezko erretilurik ez erabiltzeko. Foroak ez zekien ohitura horren berri eta pozik agertu da berarekin.

En este sentido, D. Koldo Nabaskues comenta que se está extendiendo cada vez más la iniciativa de llevar el tupper a la carnicería/ charcutería/ pescadería para que te sirvan el producto directamente en el tupper y evitar los envoltorios y bandejas de poliespan. El Foro desconocía dicha práctica y la acoge con entusiasmo.

5.3. programan, Udalerriko kalitate akustikoko plana, ekintza bakar bat dago:

- Zarataren Ekintza Plana onartzea eta jarraipena egitea, eginda dagoen zarataren mapari erantzuteko.

En el Programa 5.3.: Plan de calidad acústica del municipio se contempla una única acción:

- Aprobación y seguimiento del Plan de Acción del Ruido para responder al Mapa de Ruido ya desarrollado.

Foroak bi ekintza proposatu zituen, planean kontuan izango ez liratekeenak, poliziaren eskumena direlako: “Isilgailurik gabeko motozikletek sortzen duten zaratari buruzko ordenantza betetzearen kontrola” eta “Eskailera mekanikoen funtzionamenduaren ordutegia betetzea kontrolatzea”. Zentzu honetan, aste honetan bertan poliziak motorrak kontrolatuko ditu. Gainera, “asfaltatutako sakanguneetan abiadura murrizteko gomazko bandak ordezkatzeko azterlana” planetik kendu da, bizilagunak udalaren aurrean kexatzen direnean kasuak baloratzen direlako.

El Foro había propuesto dos acciones que no se contemplarían en el plan por ser competencia de la policía: “Control del cumplimiento de la ordenanza relativa al ruido ocasionado por las motocicletas sin silenciador” y “Control del cumplimiento del horario de funcionamiento de las escaleras mecánicas”. En este sentido, esta misma semana se va a realizar un control de motos por la policía. Además, también se ha retirado del Plan el “Estudio de la sustitución de las bandas de goma anti-velocidad por badenes asfaltados” porque ya se valoran los casos cuando los/as vecinos/as se quejan al Ayuntamiento.

Jon Iñaki Llona jaunak jakin nahi du gaizki jartzen diren obrako metalezko xaflen berri eman behar zaion udalari era berean. Kasu horretan, bada, udalari jakinarazi behar zaio, zaratarik eta arriskurik egon ez dadin.

D. Jon Iñaki Llona quiere saber si en el caso de las planchas metálicas de obra mal colocadas, también hay que notificar al Ayuntamiento. Efectivamente, ese caso también ha de ser notificado al Ayuntamiento para evitar ruido y peligro.

Natividad Morales andreak bizilagunen kexa zehatz bat jaso du Romoko kale bateko bankuetan gauean oso berandura arte egoten diren pertsona taldeen zarata dela-eta. Kexa formal bat jartzea aholkatu zaie.

Dª. Natividad Morales tiene una queja vecinal específica sobre el ruido generado por grupos de personas que se quedan en los bancos de una calle de Romo hasta altas horas de la noche. Se le aconseja poner una queja formal.

5.4. programa: Energiaren eraginkortasuna hobetzea eta energia berriztagarriak bultzatzea.

- Energia Iraunkorrerako Ekintza Plan bat egiteko ibilbide-orri bat egitea
- Energia Eraginkortasun Plana Udal Eraikinetan.
- Argiztapen publikoan energia-eraginkortasuneko plana gauzatzea
- Udalak energia berdea, % 100ean energia berriztagarrietatik datorrena, erosteko aukera baloratzea
- Energia berriztagarriak jartzeagatik edota isolamendu termikoa egiteagatik hobariak emateko aukera aztertzea
- Migrazio garaietan udal argiztapena egokitzea
- Udal eraikin berri guztietan energia berriztagarriak jartzea (geotermia, eguzki-energia etab)
- Udal eraikin guztietako kalitate akustikoko energia-ebaluazioa
- Udaleko ibilgailuak ibilgailu elektriko edota hibridoekin ordezkatzea, apurka-apurka
- Ibilgailu elektrikoak eta / edo hibridoak sustatzea / hobaritzea udalerrian eta auto elektrikoentzako kargaguneak instalatzea

Koldo Nabaskues ez dago ados etorkizunean energia iraunkorrerako ekintza plan (EIEP) bat egiteko ibilbide-orri bat egitearekin. Haren ustez, hori gutxiegi litzateke. EIEP atzeratuz gero, beranduegi litzateke, ekintzak 2020-2023an definituko genituzkeelako; horrek ekintzak 2023. urtetik aurrera ezartzera eramango gintuzke. Udalak azaldu du EIEP oso dokumentu burokratiko eta luzea dela. Koldo Nabaskues jaunak uste du energiaren gaia funtsezkoa dela eta garrantzitsuena helburuak ondo finkatzea eta listoia altuegi ez jartzea dela. Udalak gaiaz hausnartuko du eta proposamen bat egingo du.

Era berean, Koldo Nabaskues jaunak uste du “udal eraikin guztietan energia berriztagarriak jartzeko” ekintzak ez dakarrela ezer berririk, nahitaez bete beharrekoa delako. Ekintza udaleko teknikariekin birformulatuko da, udalak konpromiso formal bat har dezan udal eraikinetan kalifikazio energetiko hobeak lortzeko.

Era berean, “Fadurako futbol-zelaiko argien ordutegiak betetzearen kontrolaren” planetik kendu da, Faduraren eskumena delakoan, eta “etorkizunean energia berriztagarriak jartzeko Getxon haizeen mapa eta eguzkiaren mapa aztertzetik” ere bai, mapa horiek dagoeneko eginda daudelako.

5.5. programa: Kutsadura elektromagnetikoaren kontrola

- Eremu elektromagnetikoak sor ditzaketen antenak dauzkaten udalerriko irrati-frekuentziako instalazio emisoreen inbentarioa egitea.
- Udalerriko kutsadura elektromagnetikoari buruzko neurketen gainean ikerketa egitea.

**3.- Foroak Tokiko Agenda 21eko Tokiko Ekintza Planaren,**

Programa 5.4.: Mejorar la eficiencia energética e impulsar las energías renovables.

- Elaboración de una hoja de ruta para la elaboración futura de un PAES (Plan de Acción para la Energía Sostenible)
- Plan de Eficiencia Energética en Edificios Municipales.
- Ejecución del Plan de Eficiencia Energética en Alumbrado Público
- Valorar por parte del Ayuntamiento la compra de energía verde 100% procedente de energías renovables
- Estudiar la posibilidad de bonificar por la instalación de Energías Renovables y/o el aislamiento térmico
- Ajuste de la iluminación municipal en épocas de migración
- Instalar energías renovables en todos los nuevos edificios municipales (geotermia, solar, etc.)
- Evaluación energética OCA de todos los edificios municipales
- Sustituir poco a poco la flota de vehículos municipales por vehículos eléctricos y/o híbridos
- Promover/ bonificar los vehículos eléctricos y/o híbridos en el municipio e instalar electrolineras

D. Koldo Nabaskues no está de acuerdo con el desarrollo de una hoja de ruta para la futura elaboración del PAES. En su opinión, nos estamos quedando cortos. Si posponemos el PAES sería demasiado tarde, porque estaríamos hablando de definir acciones en 2020-2023 lo cual nos llevaría a implementarlas a partir de 2023. Desde el Ayuntamiento se explica que el PAES es un documento muy burocrático y muy extenso. D. Koldo Nabaskues cree que el tema de la energía es vital y que lo que es importante es fijar bien los objetivos y no poner el listón demasiado alto. Desde el Ayuntamiento se va a reflexionar sobre el tema y se lanzará una propuesta.

Además, D. Koldo Nabaskues opina que la acción de “Instalar energías renovables en todos los nuevos edificios municipales” no aporta nada nuevo porque es de obligado cumplimiento. Se va a reformular la acción con los técnicos del Ayuntamiento para que se exprese el compromiso formal por parte del Ayuntamiento de obtener calificaciones energéticas más altas en los edificios municipales.

Asimismo, se ha retirado del Plan el “Control del cumplimiento de los horarios de iluminación del Campo de Fútbol de Fadura” por considerarse que es competencia de Fadura y “Estudiar el mapa de vientos y mapa de sol en Getxo para la futura instalación de renovables” porque ya existen dichos mapas.

Programa 5.5.: Control de la contaminación electromagnética

- Realización de un inventario en el municipio de las instalaciones emisoras de radiofrecuencia con antenas susceptibles de generar campos electromagnéticos.
- Realización de un estudio-mediciones sobre la contaminación electromagnética en el municipio

**3.- Aprobación por parte del Foro de la versión final del**

**2016-2019, behin betiko bertsioa onartzea.**

Foroak ontzat eman du Tokiko Agenda 21eko 2016-2019ko Tokiko Ekintza Plana; energia-ekintzak birformulatzeke daude oraindik (EIEP eta kalifikazio energetikoak). Ekintzak aldatzen direnean, plana posta elektronikoz bidaliko zaie foroko kideei, onar dezaten.

Foroaren oniritziarekin, plana Gobernu Batzordeari aurkeztuko zaio, eta onartutakoan ekintzetako bakoitzaren fitxak egingo dituzte uztailean.

**4.- Galde-eskeak.**

Batzar hau denboraldiko azkena da eta arreta berezia eskatzen duen gairen bat ez bada sortzen, foroa uztailean ez da batzartuko.

Mugikortasun iraunkorraren astea irailaren 22an hasiko da. Foroari programari buruzko informazioa emango zaio posta elektronikoaren bidez, eta foroko kideen proposamenak onartuko dira.

Xabier Buenetxea jauna hemen dagoela aprobetxatuta, berriro ere zoriondu dute, URAren obran aldaketa bat egitea lortu duelako foroak, ingurumen-hobekuntza bat egiteko. Foroak berriro ere bere poza adierazi du, kasu egiten zaion eta erantzuten zaion organo bat daukalako.

Getxon, 20:40ak izanik, bilkura amaitutzat jo da.

**Plan de Acción Local de Agenda Local 21 2016-2019.**

El Foro da el visto bueno al Plan de Acción Local de Agenda Local 21 2016-2019 a falta de las reformulaciones de las acciones de energía (PAES y calificaciones energéticas). Una vez las acciones hayan sido modificadas, el Plan se enviará por correo electrónico a los miembros del Foro para su correspondiente aprobación.

Con el visto bueno del Foro, el Plan se llevará a Comisión de Gobierno y una vez aprobado se comenzarán a elaborar las fichas de cada una de las acciones durante el mes de julio.

**4.- Ruegos y preguntas.**

Esta reunión es la última de la temporada y salvo que surja algún tema que requiera especial atención, el Foro no se reunirá en julio.

La semana de la movilidad sostenible comienza el 22 de septiembre. Se mantendrá al Foro informado por correo electrónico sobre el programa y se aceptarán propuestas por parte de los miembros del Foro.

Aprovechando la presencia de D. Xabier Buenetxea, se le felicita de nuevo por el logro del Foro en lo que respecta a la modificación en la obra de URA para introducir una mejora ambiental. El Foro expresa de nuevo su satisfacción por contar con un órgano al que se le escucha y se le da respuesta.

En Getxo, a las 20:40 horas se da por finalizada la reunión.